

# Aretxagazeta

**ETA GAINERA...**

## Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Tranbiaren lehen  
proposamena abian /08**

ERAKUSKETA

**Errepublika eta Gerra  
Zibila ikusgai /09**

LEINTZ GATZAGA

**Herriko aterpetxeen  
balorazioa /10**



## DANTZARI EGUNA

**IBARREKO DANTZARIAK ARETXABALETAN, DOMEKAN**

**SANEAMENDU LANAK: ARALAR ETA ZARAIA KALEAK/4 • KIROLAK: PATINAJE IKASTAROA/6**

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

**LARRIALDIAK**

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 24**  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

**DOMEKA, 25**  
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

**OHARRAK**

**NAGUSIENAKO OPORRALDIAK**  
Imersok bidaia antolatu ditu erretiratuendako. Foru Aldundiak, bestalde, alzheimerdun gaixoendako eta gutxitu fisiko eta sensorialendako oporraldiak antolatu ditu. Eskerak Udaleko Prebentzio Zerbitzuan egin behar dira astelehen, martitzen eta egubakoitzetan. Izena emateko epea apirilaren 30ean bukatuko da.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**MAKILLAJE IKASTAROA**  
Astelehenean, hilaren 26an, makillaje ikastaroa emango dute Etxeandia ahizpek. 18:00etan izango da, udal-txe zaharrean.

**ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN**

**Bainuetxeko urets iturria berreskuratu zuen Udalak**

Bainuetxea egon zen lekuan dago urets iturria edo sufredun ura botatzen duen iturria. Denbora askoan baztertuta egon zen, nahiz eta herritar asko joaten zen hara ur bila gaixotasunak sendatzeko. Udalak berreskuratzeko proiektua egin zuen 1995ean eta apirilaren ingurua garbitu zion.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Ankajoku"**

Aintxixiketa, zerbaiti ihesi. —Keixa lapurretan zebitzen mutikua, eta ango ankajokua baserritarra azaldu zanian.



GORKA ORTEGA

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**Egile eskubideak**

Europar Komisioak Espainia, Italia eta Portugalen aurkako salaketa jarri zuen urtarrilean, 1992ko arau komunitario bat ez jarraitzeagatik. Arau horrek dioenez, liburuaren maileguengatik egileei baimena eskatu edo ordaindu egin behar zaie. Hala ere, arau horrek estatuei aukera ematen die entitate publiko batzuetan arau hori ez aplikatzeko. Frantziak, adibidez, 2003ko ekainetik aurrera eskoletako liburutegiak utzi ditu erabiltzaile bakoitzeko kobratzen duten 1,50 euroko kuota ordaintzetik kanpo. Espainiako liburuzaingek Guadalajaran otsailean egin zituzten ekitaldietan erabaki zuten kuota horren aurka azaltzea, eta Espainiako liburutegi publikoetan ezer ez kobratzearen aldeko manifestua eta sinadura bilketa egiten ari dira. Apirilaren 23an, eta Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela aprobetxatuz, zenbait ekintza egingo dira protestatzeko. Orain, gobernuek erabaki behar dute gai honekin zer egin.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Josune Blanco**  
11n, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Beñat Basabe**  
13an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Amagoia Lasagabaster**  
19an. Zorionak Oro eta Goroeta inguruko neskarik zintzoenari. Lankideak.



ESKORIATZA  
**Iosu Urzelai**  
20an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Endika de Tena**  
20an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Danel Sarasua**  
21ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Joanes eta gurasoak.



ESKORIATZA  
**Maialen Lete**  
23an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Aner Idigoras**  
24an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Miren Lete**  
25ean, 16 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Naroa Etxebarria**  
26an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Julen Ibane**  
26an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Ander Zubia**  
27an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Aritz Urzelai**  
28an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

**PHOTOSYNTHESIS**

argazkilaritza

**35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.**

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

**MAITE**

ILE APAINDEGIA

Sarasate 1 behea  
Tel. 943 79 59 05  
ARETXABALETA

**Mobiliario**

**ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa orokorrak*


Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**PAGALDAI**

*Opari denda*  
*Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14


## ATREBENTZIAEZPADA / Jubilauendako antolatzen dauen oporraldixetara fan izen zara? Eta aurten?



**INAZIO ARANBURUZABALA**  
Jubilaue



**SOLEDAD URIBEBARRIA**  
Jubilaue



**LUIS MARIA BEITIA**  
Jubilaue



**BITORI AZKOITIA**  
Jubilaue



**JESUS SAN MARTIN**  
Jubilaue



**ELVIRA DOMINGUEZ**  
Jubilaue

Bai, fan izen gare andrie eta bixok, baiñe aspaldixen ez. Bixok be osasune zaindu biherrien gabitz, eta edadien be aurrera goiez eta ez gare faten. Aurten ez dakit zer egingo dogun.

Bai, gizona jubilaue zaniñen hasi gitzen faten, baiñe azkenaldixen ez. Hamen inguruko eskursiñuetan hartzen dogu parte, baiñe egun asko pasetan ez gare dagueneko faten.

Bai, askotara. 60 urte nittuenen hasi nitzen eta oin 70 dittut, pentsau... Oin be banoie, hillen 27xen Palma de Mallorcara. Lehen be egonda nau Palman, eta errepetidu egingo dot.

Ez, sekule be ez, ondiokan estrenau barik nau. Fan gureko neuke, baiñe ze fetxa dien ikusi biher; udabarrixen edo neguen fateko aukerie egonez gero gustora fango nitzake.

Bai, Galizian egon nintzen behin eta oso ondo pasau neuen. Aurten ez dakit zer egingo dogun; izen be, hain eguraldi eskaxa egin dusku oin arte... Baiñe iguel emungo dogu izena.

Ez, ez naz sekule fan. Koiñatue daukogu gaixorik eta ezin dogu bakarrik itxi. Bestela gustoñra fango nitzake, zalantza barik, baiñe aurten be ez dot uste ahal izengo dogunik.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK TRABA ASKO PASATZEKO** Komertzioek jeneroa behar dute eta kamioilariak euren lana bete besterik ez dute egiten. Hala ere, pasatzeko traba asko izaten dituzte herritarrek une batzuetan Mitarte kaletik Ilargi plazara dagoen tartean. Kamioiak, automobila eta oinezkoak pilatzen dira, eta gurgildun aukiarekin edo ume-kotxearekin pasatu gura izanez gero, kontuz ibili. / M.A.

## ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

ASTEAN BEHIN /05

KIROLAK /06

### Saneamendu lanak

Arazo barik doaz aurrera Aralar eta Zاراia kaleetako saneamendu lanak. Udazkenean bukatuko dituzte.

### Ibarreko Dantzari Eguna

Aurten Loramendi Dantza Taldeak antolatu du ibarreko Dantzari Eguna. Domekan izango da.

### Patinaje ikastaroa

Patinaje ikastaroa jarriko dute abian biher kirol etxean. Oraindik izena eman dezakete interesatuek.

## ASTEKODATUA

# 16

### LAGUN AURKEZTU DIRA GIZARTE LANGILE POSTURA

Udaleko gizarte langile batek amatasun baja hartuko du laster. Ordezkoa hautatzeko azterketak egin zituzten atzo, eta 16 lagun aurkeztu ziren. Azterketa bi eta euskara proba egin zituzten.

## BESTEKEESANA


**“Eguraldi onarekin jendeak koloretxo hartzea gura izaten du, eta makillajea utzi; baina makillajea**

**ez da bakarrik aurpegian kolorea ematea, babesgarria erabiltzea ere bada. Arazo handiak dituzten azalendako oso ona izaten da eguzkiarengandik babesten duen makillajea. Hortaz, makillajea ez da bakarrik estetika kontua.**

**Nik edozeini gomendatuko nioke makillajea, lehen esan bezala babesgarritzat erabiltzen dugulako. Egunez babesten duen oinarria emanez gero eta gauzez ondo garbitu azalak eskertu egingo dio urteak pasa ahala. Izan ere, Euskal Herrian bizi garenok azal sentibera daukagu. Lan lekuetan daukagun haize girotuak ere kaltegarriak izaten dira eta makillajeak beti babesten du.**

**MARI KARMEN ETXEANDIA**  
Arrasate Irratia/04-04-21

## HERRITARRENBERBAK / Edorta Mendieta



*Ongi etorri, turista*

**Z**er moduz Aste Santua? Oporrak ondo? Kanpoan izango zinen, ba? Orduan, ongi etorri berriro egunerokotasunera. Hemen egia esan ez da izan giro gehiegirik. Badakizu, betiko kontua, bost egun jarraian oporrak ditugunean herria ia hutsik gelditzen dela.

Baina zergatik izan behar du honek beti horrela? Zergatik gelditu behar da Aretxabaleta basamortua baino hutsago bailara honetako lantegiek oporrak hartzen dituzten bakoitzean?

Turismo erosleak gara. Turistak esportatzen ditugu, nahiz eta turismo saltzaile izateko errekurtsorik ez zaigun falta. Zer daukate ba Montsenyk, Jerteko bailarak, Belagoak, Alpujarrek edo Galiziako beste edozein izkinak hemen eskaini ezin dezakegunik? Zergatik han errotu dira jarduera ekonomikoa dibertsifikatzera lagundu duten iniziativa turistikoak eta hemen ez? Falta zaigun bakarra

hasierako bultzada da. Iniziatiba pribatu lokalak errotu daitezten baldintza minimo egokiak jartzea. Administrazio publikoaren nahiz udal zein mankomunitatearena gidaritza estrategikoa zerbitzu sektorea sortu ahal izan dadin.

Administrazioaren ordenamendua baliabide naturalen esplotazio turistikoa bidezkoa eta jasagarria izan dadin.

Noizko orduan turismoarekin zerikusia daukaten gauzak lantzeko sail bat udaletxean? Noizko gure jarduera ekonomikoa

dibertsifikatzera lagunduko duen plan bat? Noizko metalarren transformazioaren monolaborantzatik aterako gaituen ideia originalen bat? Orain horren modan dagoen turismo berdea edo turismo aktiboaz probetxua ateratzeko aukerarik badugu. Kontutan izanda honelako proiektuak sendotzeko denbora dezente daramala, urte batzuk barru beranduegi izan daiteke. Ez ote du merezi tren hori hartzeak?

**“Turismo erosleak gara. Turistak esportatzen ditugu, nahiz eta turismo saltzaile izateko errekurtsorik ez zaigun falta”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILERA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Bueltan gaz danok

Bukatu jaku danoi oporrak, baiñe astien horixe izen dou berbagai: *Almerian egon naz, ni Cadizen, Benidormen ni, neu be bai, eta neu, eta neu...* Aretxabaletarrez gain arrasatearrak eta eskoria-tzarrak ere ugari izen die Benidormen. Beste batzuk Santiago bidien ibilli die, eta bizikletan ibilalditxo dotorie egin daudenik be egon da: Aitor Urkia, Igor San Juan, Josu Sarasua, Aitor Bengoa... ezin aittetu izen danak, baiñe erretratu politte etorren fan zan domekako *Berrian*.

Oporrak alde batera itxitxe lapurretiek emun euen zeresana astelenien. Marrokiar jatorriko mutil batzuk etxe baten sartzen saiatu ei zien bizilagune barruen zala. Honek abixue emun, eta udaltzaiñe ibilli zan euren atzien. Besotik heldu be egin eutsen bati, baiñe azkenien iges. Hortaz, lau begikin ibilli.

**SANEAMENDU LANAK/** Bai bizilagunek, bai Udalak hobekuntza handia nabarituko dute ur hornikuntzari dagokionez

# Aurrera doaz Aralar eta Zاراia kale inguruko uren saneamendu eta hornikuntza lanak

MIRARI ALTUBE

Martxoan hasi zituzten saneamendu lanak Aralar eta Zاراia kale inguruetan, eta arazo barik doaz aurrera. Bizilagunek hainbat eragozpen izango dituzte lanok iraun bitartean, baina bukatutakoan aldaketa handia igarriko dute ur hornikuntzari dagokionez.

Ia bi hilabete pasatu dira ur hodiak aldatzeko lanak hasi zitutela, eta uste bezala doaz aurrera. Hala ere, bizilagunek aparkatzeko arazoak dituzte, beste eragozpen batzuen artean.

### ERAGOZPENAK ETA HOBKUNTZAK

Amenabar enpresa eraikitzailea dabil Aralar eta Zاراia kaleetan saneamendu lanak egiten. Kale bi horiez gain Gorbeia eta Nafarroa kaleak ere zabaldu dituzte hodiak aldatzeko. Hankaz gora daude aipatutako lau kaleok, eta bizilagunak kexu dira: aparkatzeko leku falta, komertzioetan sartzeko zailtasunak... Lagun batek, gainera, jausi eta min hartu zuen, eta udaletxera joan zen kexaren berri ematera.

Udaleko Hirigintza Saileko arduradunen esanetan, ohikoak dira kexak, eragozpen asko sortzen dituztelako lanek. Hala ere,




Uren hodiak aldatzeko zulatu dituzte Zاراia, Aralar, Gorbeia eta Nafarroa kaleak, eta hankaz gora daude laurak.

lanak bukatutakoan hobekuntza handia nabarituko dute: ur hodi-tatik datozen usainak txikitu egingo dira, ur hornikuntza asko hobetuko da eta askoz etete gutxiago jasango dituzte, eta, bide batez,


espaloiak berrituko dituzte. Bizilagunekin batera, Udalak berak ere hobekuntza handia igarriko du, ur sarean sortzen diren arazoak asko murriztuko direlako, hain zuzen ere.

Ia bi hilabete pasatu dira lanok hasi zitutzenetik eta beste bost behintzat beharko dituzte guztiz bukatzeko. Orain arte bezala ezustekorik ez bazaie sortzen urri inguruan izango da hori.



## Piraguarekin Deba ibaian behera Aretxabaletan

Aste Santuan, herrian ez zegoen gauza handirik egiteko, eta Deba ibaian piraguan ibiltzea erabaki zuten Haritz Bediak eta Iurgi Etxebarriak. Errotabarri baserrietik Tubos lan-tegi ingururaino jaitsi ziren. Helburua ondo pasatzea izan zen, eta halaxe egin zuten. Ez zuten ur askorik aurkitu, baina behintzat garbia zegoen. Errekaren beste ikuspegi bat ezagutu zuten gainera. /M.A.



**MAPFRE**  
Aseguroak


Errekabarren 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**Expres**



Santakurtz 16  
943 79 23 43

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABAleta

**L. GONZALEZ**

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABAleta  
686 113 581 / 943 79 65 46



ARTXIBOA

Iaz Eskoriatzan egin zuten Ibarreko Dantzari Eguna, eta aurten Loramendi Dantza Taldeak antolatuko du Aretxabaletan.

**EUSKAL DANTZAK/** Antzuola, Arrasate, Bergara eta Oñatiko taldeak etorriko dira etzi

## Dantzari Eguna aurten Aretxabaletan ospatuko dute

MIRARI ALTUBE

Ibarreko Dantzari Eguna aurten Aretxabaletan ospatuko dute. Domekan izango da, eta ibarreko bost talde hurreratu-ko dira gurera. Euren ekitaldia bukatutakoan, oster, iparraldeko dantzak ezagutzeko eta ikasteko aukera izango dugu herriko plazan.

Urtero antolatzen dute Dantzari Eguna ibarrean. Iaz Eskoriatzan egin zuten, eta aurten Aretxabaletako Loramendi Dantza Tal-

deari egokitu zaio antolatzea. Euskal dantzak erakutsiko dizkigute herrira hurreratuko diren bost taldeek.

### IBARREKO BOST TALDE

Ibarreko bost talde etorriko dira domekan herrira: Antzuolako Oinarin, Arrasateko Arroztaitz eta Lore Gazteak, Bergarako Xamatx eta Oñatiko Oñatz. Kalejira egingo dute lehenengo kaletan barrena, eta 12:15ean alardea egongo da Herriko plazan. Taberna Berri jatetxera joango dira bazkaltzera, eta arratsalde-

an, 17:00etan, ikuskizunarekin jarraituko dute. Txistu doinuek eta jantzien kolore bizek bat egingo dute domekan gurean.

### IPARRALDEKO TALDEA

Dantzari Eguna aprobetxatuta iparraldeko talde bat ere etorriko da, Dantza Piku taldea. Mankomunitateak antolatu duen *Iparraldea Bertan* egitasmo barruan dago, eta Iparraldeko dantzak ezagutaraztea izango du helburu. 18:00etan izango da ekitaldia, herriko plazan, eta dantzak ikasteko aukera ere eskainiko dute.

## Mendeurrena ospatzen hasiko dira agustindarrak bihar, zapatua

M.A.

Agustindar elkarteak 100 urte bete ditu aurten Aretxabaletan. Hori ospatzen hasteko Loiuko agustindarren ikastetxeko abesbatzak emanaldia eskainiko du bihar, zapatua, 18:00etan, komentuan.

Otsailean bete zuen agustindar elkarteak 100 urte Aretxabaletan, otsailaren 9an, hain zuzen. Arrasatetik etorri zen elkarte, 16 mojak osatzen zuten elkarte. Otolara bainuetxea erosi, eta bertan izan zuten egoitza urte askoan. 1957an eskolak ematen hasi

ziren herriko neska-mutikoei, eta ia 50 urte pasatu ostean, aurtengo ikasturtea izango dute azkena.

Otsailean ez zuten mendeurrenaren inguruko ospakizun berezirik egin, baina urteurrenak merezi duela ikusita hainbat ekitaldi egingo dituzte; lehena bihar, zapatua, izango dute.

### LOIUKO ESKOLAKO ABESBATZA

Mendeurrena ospatzen hasteko Loiuko agustindarren Andres de Urdaneta ikastetxeko abesbatzaren emanaldia izango dute. 9 eta 13 urte bitarteko haur eta gaztetxoek osatzen dute abesbatza. Zuzendaria Montserrat Santaren

da, Portugaleteko Santa Klara musika eskolako irakaslea eta koordinatzailea Carlos Santaliestra agustindarra eta ikastetxeko irakaslea. Urtean zehar musika ekitaldi askotan hartu dute parte: Valentzian, Zaragozan, Bilboko Arriaga antzokian, baita nazioarteko emanaldietan ere. Egitaraua aldatzen eta egokitzen joan dira azken urteotan, eta hainbat hizkuntzatan abesten dute: euskaraz, italieraz, ingelesez, afrikar hizkuntzetan...

Zalantza barik emanaldi polita eskainiko dute aipatutako abeslariak bihar, zapatua, 18:00etan, agustindarren komentuan.

## LABUR

### XIII. Literatura Topaketak hasi zituzten atzo, eguna, Kurtzebarri eskolako ikasleek

Urtero antolatzen dituzte Literatura Topaketak Kurtzebarri eskolan, eta aurten, dagoeneko hamahirugarrena hasi dute. Atzo hasi eta hurrengo eguenera bitartean hainbat ekitaldi izango dituzte eskolako ikasleek: bertso antzerkia, ikus-entzunezko erreportajeak, idazleekin solasaldiak, olerki eta aho korapiloen emanaldia... Eta, nola ez, Irakur Maratoia azken egunean, eguenean. Aitzpea Goenaga eta Maite Gonzalez idazleekin egongo dira Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasle batzuk; beste batzuek, oster, bertsolari gazteen emanaldia ikusiko dute. Ikasle batzuek beste batzuei eskainitako emanaldiak ere izango dituzte astean, eta irakasleek ipuin eta olerkien emanaldia eskainiko diete eskolako ikasle gaztetxoenei. Hortaz, literaturarekin gozatzeko aukera paregabea dute Kurtzebarri eskolan.

### Kalamuak dituen arriskuak murrizteko tailerra antolatu du Prebentzio Zerbitzuak

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak, Kultura Sailarekin batera, kalamuak edo cannabisak eragiten dituen kalteak ezagutzeko eta arriskuak murrizteko tailerra antolatu du. Helburua da kalamu kontsumitzaileak erabilpen arduratsua egitera bultzatzea, eta horretarako ezinbestekoa ikusi dute eragin ditzakeen kalteak ezagutzera. Antolatu duten tailerrak hiru ardatz izango ditu: informazioa ematea, nor bere erabilpenaren gaineko hausnarketa egitea esperientziak trukatzu eta legeak gaur egun dioena ezagutzera.

Lehenengo bilera datorren martitzenean, apirilak 27, egingo dute, 20:30ean, udaletxe zaharrean. Tailerra guztira 12 ordukoa izango da, eta kalamua kontsumitzen duten 18 urtetik gorako herritarrei dago zuzendua. Saiok Aitor Alkorta psikologoak bideratuko ditu.

### 'Antonino Apreta' antzezlan eskainiko du Gorringo taldeak eguenean Udal Liburutegian

Gaur, egubakoitza, apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugu, eta joan zen apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen. Ez dugu aparteko ekitaldirik izan herrian, hortaz bi data horiek gogoan izan eta ospatu guran Gorringo antzerki taldearen emanaldia antolatu du Udal Liburutegiak umeendako. Bernardo Atxaga idazlearen liburuan oinarritutako *Antonino Apreta* antzezlan eskainiko du Gorringo taldeak hurrengo eguenean, hilak 29, 18:00etan, liburutegian. Gogoratu, 4 eta 9 urte bitarteko herriko ume guztiak daude gonbidatuta eguenerako.



### Mexikon ere ospatu zuten Aberri Eguna

Euskal Herrian ez ezik munduko beste herri batzuetan ere ospatu zuten Aberri Eguna apirilaren 11n. Hala, Mexikoko hiriburuko Euskal Etxean jai dotorea antolatu zuten. Bertakoez gain hemendik joandakoak ere hurreratu ziren, Oier Arantzabal eta Oier Etxebarria tartean. Ederto ospatu zuten guztiek, eta dantzan egiteko aukera ere izan zuten. /M.A.



ARTXIBOA

Giro ona izan ohi da nagusi patinatzen ikasten duten bitartean, eta oso ondo pasatzen dute partaideek.

## PATINAJEA

## Bihar hasiko dute patinaje ikastaroa, eta oraindik eman daiteke izena

Bi talde egingo dituzte: bata, hasiberriendako, eta bestea, teknika hobeto gura dutenendako

M.A.

**Bihar, zapatua, hasiko dute patinaje ikastaroa kirol etxean. Debagoieneko Kirol Zerbitzuak antolatu du, eta bi talde egingo dituzte: bata, hasiberriendako, eta bestea, teknika hobeto gura duten patinatzaileendako. Oraindik lekua dute, gainera, bi taldeetan.**

Bihar hasi eta ekainaren 5a bitartean zapaturo elkartuko dira patinatzaileak kirol etxean. Patinaje ikastaroan hartuko dute parte, eta helburua da batzuek patinatzen ikastea eta beste batzuek patinatzen dakitena hobetzea.

**AURTEN, HIRUGARREN ALDIZ**

Aurten hirugarren aldiz antolatu dute ikastaroa Aretxabaletan. Mikel Morras arrasatearra izango da irakaslea, aurreko urteetan bezala. Neska gehiago etorri ohi da ikastaroetara, eta orokorrean gaz-

teak dira animatzen direnak, 20 eta 35 urte bitartekoak. Zeresanik ez aparteko giroa izaten dutela patinatzen ikasten duten bitartean.

Asier Muxika kirol teknikariaren esanetan, norberaren dohai- nek zeresan handia dute kirol honetan ere: "Batzuek oso azkar ikasten dute eta beste batzuek asko kostatzen zaie. Oreka, ausardia, trebetasuna... Guztia hartu behar da kontuan, eta egia da haurrek azkarrago ikasten dutela; izan ere, trebetasunak eskuratzeko zenbat eta gazteagoa izan hobe".

**BI TALDE AUKERAN**

Bi talde egingo dituzte, hobeto ikas- teko asmoarekin: 10:30etik 12:00etara bitartean hasiberriak ibiliko dira eta 12:00etatik 13:30era bitartean patinatzen jakinda teknika hobeto gura dutenak.

Dagoeneko hainbat lagunek eman dute izena, baina oraindik lekua dute taldeetan, hortaz, interesatuok lehenbailehen deitu kirol etxera. Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuak 20 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoak 24 euro.

**NON PATINATU**

Behin ikasi ostean patinatu gura izaten dute ikastaroan parte hartutakoak. Baina non egin herrian? Urkulun beharbada, baina Asierren esanetan, gaur egun dagoen moduan ez da leku aproposa: "Iturri- gorritik skate-parkera bitartean dagoen tartea edo kirol etxeko kantxa dira aproposenak patinatzen ibiltzeko".

*"Oreka, ausardia, trebetasuna... Guztia hartu behar da kontuan patinatzerakoan"*

## FUTBITOA

### Arlutz Futbito Txapelketako finalaurrekoak jokatu dituzte bihar lau taldek

Dagoeneko heldu dira finalaurrekoetara Arlutz Futbito Txapelketa jokatzeko dabilen taldeak. Zazpi talde ibili dira norgehiagokan, eta bihar lau onenek izango dituzte partiduak. Goizean, 12:00etan, Peña Hugo taldeak DDKren aurka jokatu du, eta arratsaldean, 16:00etan, Kemen taldeak Fonta Sport izango du aurrez aurre. Bi norgehiagoka horietako irabazleek finala jokatu dute, eta maiatzaren 8an izango da.

## PILOTA

### Aurrera doaz Errasti anaiak Debarroko Pilota Txapelketan, eskoriatzarrei irabazi ostean

Udaberriko Pilota Txapelketa irabazi ostean, Debarroko Txapelketa jokatzeko dabilen Errasti anaiak, eta joan zen astean Eskoriatzako Gracia eta Errarte bikoteari irabazi zioten. Gaur, egubakoitza, Bergaran izango dute partidua, 19:30ean.

Aste Santu aurretik, ostera, Zaramagako Pilota Txapelketako finala jokatu zuten Gasteizen. Oso partidu gogorra jokatu ostean, 22-18 galdu zuten Usurbilgo Huici eta Lazkaoko Ruizen aurka.

## FUTBOLA

### Partidu gogorra jokatu du Tolosaren aurka domekan preferente mailako taldeak

Bergararren aurka joan zen asteburuan husna berdindu eta gero Tolosa izango du aurkari domekan UDAko preferente mailan jokatzeko duen taldeak. Partidu gogorra izango dute Igor Gordobillen mutilek, izan ere Tolosa sailkapeneko laugarren postuan dago 50 punturekin eta talde aretxabaletarra hirugarren postuan 51 puntu dituela. 16:30ean hasiko da partidua domekan, apirilak 25, Ibarra futbol zelaian.

## XAKEA

### Txapelketa politik egin ditu Aitor Alcaide xake jokalariek Aste Santuetan Donostian

Txapelketa bi jokatu zituen Aitor Alcaide xake jokalaria aretxabaletarrak Aste Santuetan Donostian. Oso ondo ibili zen bietan ere. Nazioarteko Xake Txapelketan 96 parte hartzaile egon ziren, eta 27. postuan bukatu zuen. Hirugarren gipuzkoarra izan zen, gainera, eta saritoxoa ere eman zioten. Xake Bizkorreko Txapelketan, ostera, 100 parte hartzaile egon ziren eta 17. postuan geratu zen Aitor. Hemen ere hirugarren gipuzkoarra izan zen.

## FUTBOLA

### Bi txapelketatan hartu zuten parte ohorezko infantilek Aste Santuko egunetan

UDA kirol elkarteko ohorezko infantilen taldeak ez zuen atsedetik hartu Aste Santuan, eta bi txapelketa jokatu zituen. Lehenengoa Gasteizen izan zuten, eta oso eguraldi txarra egin zuen. Bigarrena Burgosko Briviesca herrian jokatu zuten, eta hirugarren postuan geratu zen Aitor Irurek eta Iban Rodriguezek zuzentzen duten mutiko taldea. Asteburuan berriro ekingo diote ligari, eta Antiguoko taldea izango dute aurrez aurre domekan, 11:30ean, Ibarra futbol zelaian. Partidu gogorra izango da, zalantza barik.

Jarri martxan uda honetarako!

- 1 Pisua galtzeko programak
- 2 Forman jartzeko programak

3 hilabeteko programak!  
Matrikula daan!



Zainduz

Ilargi Plaza, 6 beheha  
Tel. 943 71 27 92  
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)  
www.zainduz.com



ERRETRATUZAHARRA

# Garotara bidean zihoala argazkia



**A**retxabaleako Udalak Gabon inguruan herritarrei banatu zien egutegian agertzen den erretratuak dakargu aste honetan. Errotabarri baserriko Justino Uribealgo apaizak atera zuen hain justu 1955. urte inguruan. Erretratuak ateratzea zuen gustuko antza Justinok, eta hemen azaltzen denaren antzekoak bat baino gehiago ditu. Baserriak, baserritarrak lanean, jaiak... erretratu asko eta politak. Aretxabaleako eta inguruko auzoetako gain ibarreko beste herri batzuetakoak ere atera zituen.

Informazio eske erretratuan agertzen den mutiko batengana jo dugu, idiaren parean dagoen Jose Ramon Gaztañagarengana hain zuzen. Gogoan du berak irailiko egun bat izan zela: "Idiekin ira bila edo garotara nindoala Justino Errotabarriko apaiza agertu zen Galartzako Naparrena baserri parean. Ikusiaz bat itxarroteko esan zidan, argazkia atera gura zuela eta Naparreneko anai-arrebei deitzera zihoala", dio Jose Ramonek,

"Nik itxaron egin nien eta anai-arrebak agertu zirenean argazki ederra atera zigun bidaliko zigula esanaz".

Idiak eta gurdia Jose Ramonen osaba batenak ziren Isidro Txintxurretarenak. Izan ere, garai hartan baserri-tarrek irak batzen zituzten basoan

negu partean azpiak garbitzeko behiei eta Jose Ramon mutikoa osabarengana zihoan garotan laguntzera Justino agertu zitzaionean. Akulua eskuan duela dagoen mutikoa Jose Ramon Gaztañaga da, eta gurdi gainean eserita dauden neska-mutikoak

Naparreneko anai-arrebak dira: Jose Luis Arana, Anjel Arana eta Mari Asun Arana.

**Argazkia:** Justino Uribealgo

**Informazioa:** Jose Ramon Gaztañaga

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Arkarazora doan bide ingurua

**A**rkarazo eta Mendiola auzoetara doan bide ingurua dugu argazkian. Baintxe kalea hain zuzen. Urte gutxian aldaketa asko jasan ditu aipatutako kaleak. Etxe berriak egin dizkiote alde batean, eta bideari ere Araba Ibilbidetik duen sarrera aldatu egin diote. Hori bai, Baintxe kaleko etxeek, etxe txiki horiek, bertan jarraitzen dute ingurua erabat txukunduta.



≈ 1992

Baintxe kaleko etxe txikien aurretik Arkarazora doan bidea pasatzen zen. Azken urteotan aldaketa asko egin dituzte.



2004

Etxe txikien parean etxebizitza berriak egin dituzte, eta ingurua erabat txukundu dute. Bidearen norabidea zertxobait aldatu dute.

**Jou Díaz**  
Harakina  
Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**JAUSORO OSTATUA**  
Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

**Lie**  
LURRINDEGIA  
OPARI DENDA  
Mitarte 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA

**PIENSO SUNZUE S.A.**  
FELIX PAGALDAY  
Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

**Maritxu**  
drogeria  
mertzeria  
Araba Ibilbidea 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2003ko uztailaren 24a / 134. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Tranbia Eskoriatzatik igaroko da, eta dagoeneko egin dute lehen proposamena

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Debagoieneko tranbia Eskoriatzatik igaroko da. 2007rako Bergara eta Aretxabaleta arteko bidea egitea espero dute, eta ondoren Eskoriatzarako luzapena. Hilaren 7an Alvaro Aman Garraio eta Azpiegitura sailburua Bergaran izan zen azken proposamena egiten.

Bailaran garraioaren arazoari aurre egiteko, tranbia ipintzeko egitasmoa egin zen. Proiektu horren barruan sartzen da Eskoriatza, eta dagoeneko iritsi da egitasmoaren lehenengo proposamena. Proposamena aurreproiektu bihurtzea eta informazio publikoa irailerako izatea espero dute Udal ordezkariak.

### PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Tranbiaren ibilbideari buruzkoa da proiektua. Aretxabaletatik Eskoriatzarako bidea, Ederlan albotik igaroko da, asmoa aurrera eramanez gero. Herrira sartu eta lehenengo geltokia Intxaurtxueta pilotalekuaren aldamenean egotea dute helburu.

Kalean gora jarraitu eta errepidea errespetatuz, espaloi zati bat



Printzipioz, herri erditik igaroko da tranbia, eta bi geltoki izango ditu herri barruan.

hartuko du tranbiaren bideak, betiere egitasmoa beteta. Espaloi bakarririk ez, Gorosarri plaza aldamenetik igaro eta plazari ere zati bat hartuko dio.

Elizako zubiaren aldamenean beste geltoki bat izango dute bidaiariek, proiektuaren arabera. Etxebizitza bakoitzetik geltokietara gehienez bost minutuko den-

bora tartea egotea nahi da. Hala, hutsunea ikusten du Udalak Unibertsitate inguruan, Aranburuzabala kalean, eta beste geltoki bat proposatuko dute bertarako.

*Tranbiaren aurreproiektua eta informazio publikoa irailerako espero da*

*Bi geltoki egongo dira herrian, baina beste bat ipintzeko proposamena egingo dute*

*2007 inguruan hasiko dituzte Eskoriatzatik igaroko den tranbiaren lanak*



### Parroko ohia bisitatzera joango dira bihar

Bihar, zapatua, herriko hainbat elbarri fisiko eta psikiko Salamanca aldera joango dira, sei urtez herriko parrokoa izan zen Xabier Gomezi bisita egitera. Goizeko zazpietan irtengo dira autobus geltokitik. Bertara iritsi, Xabierrekin bazkaldu, eguna elkarrekin igaro eta 22:00etarako Eskoriatzara iritsi gura dute. Parroko ohiak harreman estua izan zuen herriko elbarriekin, eta bertan igarotako urteak gogoratuko dituzte egingo duten txangoan.

### LABUR

#### Kultura orokorrari buruzko ikastaroa Amuskaren eskutik

Eskoriatzako Emakume Elkarateak, Amuskak, hitzaldia antolatu du apirilaren 28rako. Kultura orokorra lantzeko ikastaro bat antolatu du elkarateak. Herritar guztiak datorren ikasturtean, irailtik ekainera, EPAREN bitartez egunean bi orduz eskolak hartzerari animatu nahi ditu Amuskak. Askotariko ikasgaiak emango dira: hizkuntza, literatura, matematika... Informazioa eman eta eskaerak jasoko dituzte eguaztenean, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kiroi etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

**OHARRAK**

**KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Eskoriatzako gaztetzearan kontzertua eskainiko dute bi taldek gaur, egubakoitzea. 22:30ean hasita, Los Comerciales eta The Lucas Prest taldeak arituko dira zuzenean. Sarrera, 3 euro ordaindu beharko dute interesatuek.

**EZOHIKO BILKURA BIHAR**

Bihar zapatua, hilak 24, Udalak ezohiko bilkura egingo du. Goizean izango da hitzordua, 11:00etan. Landuko den gaia, autobideak hartuko dituen ondasun eta eskubide zerrendari alegazioei aurkezteko erabakia.

**AXTROKIRENAGENDA**

**ETORKIZUNEN IKASTAROAK**

Bazkideek eta bazkide ez direnek ze ikastaro jaso nahi duten jakin nahi dute. Proposamenak [axtroki@topagunea.com](mailto:axtroki@topagunea.com) edo 943-71 54 34 telefonoan apirilaren 30a baino lehen.

**ASKOTARIKO MATERIALA AURKI DAITEKE ERAKUSKETAN**

**Errepublika garaia gogoratzeko, erakusketa kultura etxean**

Z.V.M.

Domekan, apirilak 18, Errepublikari eta Espainiako gerrari buruzko erakusketa ireki zuten kultura etxean. Lau hilabeteko lana izan dute antolatzaileek, eta datorren maiatzaren 2ra arte egunero irekiko dute erakusketa. Dagoeneko jende ugari gerturatu da, batzuk garaia gogoratzera eta beste batzuk ikastera.

Kultura etxeko aretoan gai lantzen dituen materiala dago horman zintzilik: Eskoriatza, eta Eibarri buruz; gerra, eta orduko emakumei buruzko agiri eta argazkiak, eta azkenik kartelak.

Horrez gain, hiru beira-arasa jarri zituzten areto erdian. Bertan, garaiko txanpon eta billeteak ikus daitezke. Horrekin batera, gerra garaiko arma eta munitzio ugari: pistolak, ganibetak, granadak, lehergailu handi bat, gas maskarak... Garaiko komunisten zapiak ere badaude...

Material gehiena Guardiako (Biasteri) Lagunen Elkartek utzitakoa da. Bestetik, hainbat herri-tarrek ere kolaboratu dute

*Erakusketa bidez, garaiko gertaerak gogoratu eta irakastea lortu gura dute*

beraien materiala utzita. Azken orduan oraindik hainbat argazki eraman dituzte. Beste batzuek erakusketan dauden Eskoriatzari buruzko zenbait argazkiren informazioa eman dute, pertsonen eta batailoien izenak...

**EZUSTEKOA INAUGURAZIO EGUNEAN**

Etxafuego eta guzti inauguratu zuten erakusketa domekan. Ustekabeko txiki bat ere izan zuten momentu hartan. Zuziri bat pizterakoan, gainerakoek su hartu zuten, eta Urrestilla tabernako kristala hautsi zuen horietariko batek. Ondorioz, plazara gerturatutako zenbaiti zauri arinak eragin zizkieten beira zatitxoek.



Errepublika eta Gerra Zibileko material ugari aurki daiteke erakusketan.




**Eguneko zentroa inauguratuko dute eguaztenean**

Eguneko zentroaren inaugurazioa egingo da datorren apirilaren 28an. Martxoaz geroztik dago irekita, eta 15 pertsonarendako tokia dute bertan. Besteak beste, endikapenezko gaixotasuna duten adinduei errehabilitazio zaintza eskaintzen zaie, oroimena lantzen dute eta eskulanak egiteko aukera dute bertan. 09:00etan irekitzen dituzte ateak. Erabiltzaileei, gosaria, bazkaria eta askaria eman eta 18:00etan eguneko zentroaren ateak ixten dituzte.

**LABUR**

**Argentinako euskal etxe batera elkartrukean**

Argentinako Necoche herriko euskal etxeak Euskal Herriko gazteekin harremanak egin nahi ditu. Horretarako elkartrukea antolatu dute uztaile eta abuzturako. 18 eta 30 urte arteko gazteei egin gura diete dei; euskal musika, gastronomia, kirola eta dantzetan esperientzia eta ezagutza dute nei. Gutxienez bi asteko eta gehienez hilabeteko egonaldia izango dira. Informazio gehiago, Euskadiko Gaztediaren Kontseiluan edo [par-taidetza@egk.org](mailto:par-taidetza@egk.org) helbidean.



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.  
Gastafadui auzoa 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71

ATSEDEN HARTZEKO TOKI APROPOSA BIHURTU DA GATZAGA

# Eguraldiak ez lagundu arren, bisitari ugari gerturatu dira Gatzagara Aste Santuan

Z.V.M.

Aste Santuan kanpotar ugari egon da herrian. Batzuk egun pasa, eta beste batzuk lo egitera geratu dira. Azken horiek herriko bi landetxeetan hartu dute ostatu. Atsedean hartu, eta herria eta inguruak ezagutzeko aprobetxatu dute bertan igarotako denbora.

Pasa dira Aste Santuko oporrak, jende gehienak atsedean hartzeko aprobetxatzen dituen jaiegunak. Hala ere, guztiek ez dute oportetako plan bera izaten. Batzuek otoitzerako erabiltzen dute aisialdia; beste batzuk eguzki bila irtezen dira kanpora; beste askok mendia dute gustuko.

Lanak eta familiak dakarten estresa kentzeko normalean lagungarri izaten dira opor motz hauek. Lo egin, paseatu, toki berriak ezagutu... Aukera zabalago dago zerbait egin gura dutentzat. Ibarrean ere badago erlaxatzeko modurik.

Jende ugari hurbildu da egun horietan Gatzagara. Herriaren historia ezagutu, herritarrekin hitz egin eta inguruetan itzulitxo egiteko aprobetxatu dute horietariko askok. Egun pasa etortakoak izaten dira gehienak. Hala ere, bada bertan egun batzuk egin dituenik ere.

## JENDE ASKO LANDETXEETAN

Gatzagan bi landetxe aurki ditza ke kanpotik datorren bisitariak: Gaztainuzketa eta Aterbe. Lehenengoak zazpi txabola ditu gertatuta atsedean hartu gura dutenarentako. Beraiekin hitz egin, eta Aste Santuan jende ugari izan dutela adierazi diote ZEBARRI-ri. "Lehenengo astean txabola



Atsedean hartzeaz gain, Gatzaga inguruko paisaiak gozatzen du bertara datorren bisitariak.

guztiak bete ziren, ez zen tokirik geratzen". Pazko astea, baina, bestelakoa izan zen: "Jende kopuru txikiagoa izan genuen bigarren astean, %60 bete zen. Landetxea ireki genuenetik guztiz betetzen da Aste Santuan. Bi hilabete lehenagotik ez da plazarik izaten".

Eguraldiak ez lagundu arren, mendira joateko aprobetxatu zituzten bisitari askok bertan igarotako egunak. "Baina batez ere atsedean hartzerako etorri eta lasai-

lasai inguruan geratu ziren", adierazi digute. Gaztainuzketako bezero guztiak euskal herritarra izan dira: donostiarrak, bilbotarrak... Kanpotarrak udan bakarrik joaten omen dira landetxera.

Herriko bigarren landetxea ireki berri duten Aterbe da. Ez dute Gaztainuzketan beste bezerorik izan. Hala ere, oso pozik azaldu dira Aterbeko jabeak: "Lehenengo urtea izateko, bada animatu denik". Elgoibarko bikote

bat landetxeak eskaintzen dituen erosotasunez gozatzera gerturatu zen bertara.

Eguraldi kaxkarrak sutondotan egoteko gonbita egin eta bikotea goxo-goxo egon zen egongelan. Baina ez da erlaxatzeko erabili zuten sistema bakarra. Aterbek badu eskaintza berezi bat: sauna eta bainu turkiarra, hain zuzen ere. "Gatzagako inguruak bisitatzeko aukera izan dute, herria ezagutu, paisaiak gozatu eta egu-

*Landetxeetan jende ugari izan dute Aste Santuan, guztiak euskaldunak*

*"Mendira joan, herria ezagutu; orokorrean lasaitasun bila datoz bisitariak"*

*Estresa kentzeko toki lasaia da Gatzaga, eta euskaldun askok badute horren berri*

na ondo amaitzeko sauna hartu edo bainu turkiarra erabili. Gainera, aterpetxera iritsi eta etxeko kontuez arduratu beharrik ez".

Atsedean hartu eta lanera berriturik joateko aukera eskaintzen dute, beraz, Gaztainuzketa eta Aterbek. Urtero bisitari kopuru handia izaten du herriak horrela, eta bailarako txoko lasai eta aberatsa ezagutzeko parada izaten dute kanpotarrek.



## Martitzenera arte ukipen pantaila Garro jauregian

Eguazten arratsaldean hitzaldi txiki bat egin zuten Garro jauregian, *Iparraldea bertan* egitasmoari ongietorria egiteko. Euskal Herriko txoko hartako bi kide aritu ziren hizlari lanetan, eta egitasmoaren nondik norakoak azaldu zizkieten entzuleei. Iparraldea eta Debagoiena gerturatzea helburu duen egitasmoak *Euskal Herriko aurpegiak* gaiari buruzko ukipen pantaila ekarri du herriera, eta martitzenera arte egongo da irekita, arratsaldez.

## LABUR

### Bilerara jende gutxi joan zen arren, hainbat ekimen egiteko erabakia hartu zuten

Gatzagako Udalak bilera deitu zuen apirilaren 6rako. Bertara herritarra joatea nahi zuten, batez ere gazteak. Horrela, urteko ekintza kulturalak antolatu gura izan dituzte. Martxoaren 25ean egin zen osoko bilkuran herritar gutxi hartu zuten parte, eta horregatik bigarren bilera bat egin beharra ikusi zuten. Bertara ere jende gutxi gerturatu zen. Hala ere, bileran esku hartu zutenek hainbat erabaki hartu zituzten oporrak hartu aurretik.

Deialdiari lau lagunek erantzun zioten, lehenengo bileran baino zortzi gutxiagok. Beraiekin batera, herriko alkatea eta kultura zinegotzia egon ziren. Jaiei dagokienez, irailaren 8a egun handia izango dela adierazi digu Jon Sasiainek. Egun horretan, aspaldiko ohiturari jarraituz, Otxandioko lagunak joango dira herrira.

Bestetik, pilota partiduren bat eta sokatira lehiaketaren bat edo beste egiteko asmoa erakutsi du herriko kultura zinegotziak. Baina bizikletarekin lotutako ekintzak ere egongo dira Gatzagan. Urriaren 3an, mendiko bizikletan aritzen direnek ibilbide bat izango dute egiteko. Aurreko esperientzia ona errepikatu gura dutela adierazi dute udal ordezkariak.



# SARRERA DOAN

## Aste bukaerako plana zabal-zabalik

### Zozketa

Bi lagunendako afaria  
Diskoak  
Kontzertuak eta antzerkia

943 71 23 93  
UTZI MEZUA!

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

SARRERA DOAN  
Laguntzaileak:  
Bilintx, Arteaga landetxea, Jade, Gili gili

Eguenetan,  
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:  
**Amagoia Lasagabaster**

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**



*Matikua jatetsxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden  
CYBERCAFE



Araba Ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91



EGYNEKO MENYAK  
OTARTEKORK ETX  
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • Tel. 943 792064  
ARETXABALETA

**COMPOSTELA**  
Taberna

**Olagarro** espezialitatea

San Pedro 12  
ESKORIATZA  
943 71 48 70

**H A I Z E A**



Kafetegia  
eta  
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 60

**ZARAIA**  
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 95

**HIRUSTA JATETXEA**  
Zatoz gure sukaldean ezagutzera




Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

**Mirrentxu**



Hidalga 10  
Eskoriatza. 943 71 41 67



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

**Taberna Berri**



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA  
**ARLUTZ**

**Gustuko musika**

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Dorleta**  
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
ARETXABALETA  
Tel.943 79 94 15

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABALETA



**Gustora egoteko!**

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

**Aretz**  
taberna



ORDUTEGIA:  
Asteleheneetik ostiralera  
9:00etatik zabalik  
Astebukaeretan  
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA